


+ EUS
+ ka
+ raz,
S.A.



Ordutegia
Astlehondik-Ostir
10:00 - 13:30
16:00 - 20:00
Laruntza
10:00 - 13:30
17:00 - 20:00

EUSKARA ERABILTZEKO DIRULAGUNTZAK ETA LAGUNTZAK





Ekintzaileek eta
enpresek euskara
txertatzeko
EGITASMOAK

OARSOARRAK

XEDEA

Oarsoaldeko Euskara Batzordea Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiako Udalek euskararen normalizazioan elkarlanean jarduteko sortutako foro edo elkargunea da. Oarsoaldea Garapen Agentziaren euskara sailaren gidaritza organoa ere bada aldi berean.

ONURADUNAK: PERTSONAK ETA ENPRESAK

- Oarsoarrak egitasmoaren baitan hainbat ekintza: www.oarsoarrak.eus eta lan munduarekin lotutako egitasmoak: Enpatikonomia, Ola planak,...
- Ekintzaileentzat Hizkuntza-normalizazioaren gaiari dagokionez antolatzen diren saioak.
- Oarsoaldea Eskolatik Lanera: Lanbide heziketako ikasleak (Don Bosco eta Pasaiako Itsas-eskola) praktikak euskaraz egin ahal izateko egitasmoa. (Oarsoaldea eta AHIZE-AEK)

LANIN OIARTZUN

XEDEA

Oiartzungo enpresa txiki eta ertainei **ZERBITZU HIZKUNTZA** eta **LAN HIZKUNTZA HOBETZEKO** zerbitzua. LANIN OIARTZUN

ZERBITZUAK

- **Aholkularitza eta informazio zerbitzua.** Gaia kokatzen eta erabakiak hartzen lagundu eta enpresaren ezaugarrien araberako lehentasunak finkatu (sektorearen eta langileen gaitasun linguistikoaren arabera...).
- **Hizkuntza zerbitzuak.** Terminologia eta gramatika zalantzak argitu ("Nola esatean da...?"). Itzulpenak eta zuzenketak
- **Dokumentu ereduak sortzen lagundu.** Erabilienak diren dokumentuen eredu edo formatuak sortzen eta sistematizatzen lagundu.
- **Diru-laguntzak dokumentu luzeagoak itzultzeko,** errotuluak aldatu eta irudi korporatiboa lantzeko, webguneak itzultzeko, aplikazio informatikoak eta makinak euskaratzeko, kudeaketa euskaraz eramango dieten enpresak kontratatuzeko...
- **Euskara eskolak.** Idatzizko gaitasuna hobetzeko ikastaroak eta trebakuntza. Ahozko gaitasuna hobetzeko trebakuntza eta Mintzalaguna.
- **Lantaldeak motibatzeko saioak.** Hizkuntza ohiturak aldatu eta erabilera sustatzeko dinamikak. Gomendioak eskaini eta laguntza ibilbidea finkatzeko eta emango diren pausoen inguruan hausnartzeko. Horretaz gain, bileretan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko teknikak erakutsi.
- **Egitasmoaren ikurra erabiltzeko aukera.**
- **Udalaren Webgunean atal bat**

AHOLKULARITZA ZERBITZUAK

- Euskararen sustapenerako edo euskara planak garatzeko aholkularitza eskaintzen duten enpresak edo Udaletako zerbitzuak.

UDALETAKO LAN MAHAIETATIK ABIATZEN DIREN EGITASMOAK

■ Oarsoaldeako Udaletan antolatzen diren lan mahaietan hainbat gai eztabaidatzen dira eta horietatik hainbat egitasmo atera daitezke. Esaterako, Pasaiako Udalean momentu honetan, hizkuntza aholkularitzarekin batera, **euskara lan munduan txertatzeko hausnarketa egiten ari dira.**



A photograph of a clothing store interior. The scene is dimly lit, with a focus on the clothing racks and a table in the foreground. The text is overlaid on the image. A solid pink rectangle is positioned above the text. The text is in white and pink, with the word 'DIRULAGUNTZAK' in a larger, bold, pink font.

Ekintzaileek eta
enpresek euskara
txertatzeko
DIRULAGUNTZAK

Dirulaguntzak

OARSOARRAK

OARSOARRAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



UDAL DIRULAGUNTZAK

Errenteria | Lezo | Oiartzun | Pasaia



HIZKUNTZA POLITIKA SAILA LAN-HITZ (EJ)



OARSOARRAK



- EUSKARAZKO KARTEL, TXARTEL, ERANSKAILU; TALONARIOAK...
DOAN
- EUSKARA ESKOLETAN TALDE ETA
PREZIO BEREZIAK

OARSOARRAK

ERRENTERRIAKO UDALA



Lan munduan euskararen erabilera, ezagutza eta ikusgarritasuna sustatzea.

- **Xedea:** Dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, saltoki eta enpresetan euskararen erabilera, ezagutza eta ikusgarritasuna sustatzeko egitasmoak burutzeagatik; hala nola errotulazioa, eta bestelako euskarri gaineko idatziak (txantilloiak, informazio orriak...), web orriak eta teknologia berriekin zerikusia duten jarduerak, esate baterako .eus domeinua ezartzea. Lehia bidezko konkurrentziaren bidez (eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiak aintzat hartuz, aurrekontu- partida agortu arte) esleituko dira.
- **Onuradunak:** Oro har, dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte Errenterian errotutako edozein enpresa juridiko pribatuek.

Saltoki eta enpresen errotulazioa eta web orriak.

- **Xedea:** Saltoki eta enpresen errotulazioa, eta bestelako soporte gaineko idatziak (txantilloiak, informazio orriak...), web orriak eta teknologia berriekin zerikusia duten jarduerak.
- **Onuradunak:** Oro har, dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte Errenterian errotutako edozein pertsona fisiko edo erakunde juridiko pribatuek.

Bai euskarari ziurtagiria eskuratzea.

<https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/#euskara>



OIARTZUNGO UDALA

Dirulaguntzak



■ Arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzak.

- **Xedea:** Oiartzungo Udalaren Euskara Sailak merkatal establezimenduetan eta enpreetan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea.
 - KANPOKO ERROTULAZIOA EUSKARAZ JARTZEKO DIRULAGUNTZAK.
 - WEBGUNEETAN PUNTUEUS DOMEINUA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK.
 - TICKETBAI TRESNA LEHEN ALDIZ EUSKARAZ JARTZEKO DIRULAGUNTZAK.
 - EUSKARA PLANAK DISEINATZEKO ETA HAIEN JARRAIPENA EGITEKO, ETA EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO EKINTZAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK.
- **Onuradunak:** Oro har, dirulaguntza hauetarako aukera izan dezakete Oiartzunen kokatutako merkatal-establezimendu eta enpresek. Horrez gain, Udalarekiko betebeharrak (lizentziak, jarduera baimenak, zergak) egunean izan beharko dituzte.

https://www.oiartzun.eus/eu/Hizkuntza_normalizazioa/Dirulaguntzak

PASAIAKO UDALA



- Errotuluak euskaraz jartzeko diru-laguntzak.
- Langileek euskara ikasteko dirulaguntzak.
- Enpresentzako euskara planetarako diru-laguntzak.
- Euskarazko irudi korporatiboei, web guneei eta programa informatikoei dirulaguntzak.
 - **Xedea eta onuradunak:** Pasaiako kultur-, kirol-, aisialdi-talde, enpresa edo merkataritza zein ostalaritza establezimenduen errotuluak euskaraz jartzeko, enpresek euskara planak diseinatzeko eta haien jarraipena egiteko, euskarazko irudi korporatiboei, web guneei eta programa informatikoei dirulaguntzak.

<https://www.pasaia.eus/eu/euskara-enpresak>



LEZOKO UDALA



Lezoko Unibertsitateko Udala

- • Lezoko erakunde/elkarteen eta komertzio- eta ostalaritza-errotuluak euskaratzeko dirulaguntza: lokal eta establezimenduen kanpoaldean jartzen diren errotuluak euskara hutsean jar ditzaten herriko laguntzeko xedea bilatzen du dirulaguntza lerro honek.
- ".eus" domeinua jartzeko dirulaguntza.

<https://lezo.eus/eu/dirulaguntzak-euskara-saila>



BESTE DIRULAGUNTZA BATZUETAN EKINTZA EUSKARAZ EGITEAGATIK PUNTU/DIRU GEHIAGO EMATEN DUTE.

Adibidez: Errenteriako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetan eraldaketa digitala eta trantsizio ekologikoa bultzatzeko dirulaguntzak: % 10 handitu besteak beste.

- Bai Euskarari ziurtagiria.
- Digitalizazioan, softwarearen ... funtzionamenduko hizkuntza euskara izateko aukera gehitzen bada.
- TicketBAI ezartzean, euskaraz ere egiten bada eta erosketa-ticketak euskaraz eman baditzake.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



■ Informazio eta komunikazio teknologiak erabiliaz, edukiak euskaraz sortu eta hedatzeko proiektuak:

- a) Euskarazko edukiak eskaintzen dituzten **webgune ez korporatiboak garatzea**, edukiak libreki eskuragarri izan daitezen.
- b) **Software tresnak euskaratzea.**
- c) **Nerabe eta gazteen aisialdirako edukiak sortu eta hedatzea helburu duten egitasmoak**: bideo tutorialak, lehiaketak edo blogak biltzen dituzten ekimenak.
- d) Erakunde eskatzailearen funtsetan eta artxiboetan diren eduki digitalak libreki eskuratu, partekatu eta birnahasteko bideak errazteko **garapen teknologikoak.**
- e) **Gailu mugikorretan erabiltzeko aplikazioak sortu eta ekoiztea.**

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/tramiteen-zerrenda/-/tramiteak/xehetasuna/1706>

EUSKO JAURLARITZA


HIZKUNTZA POLITIKA SAILA - LANHITZ



■ EAEko sektore pribatuan dauden lantokietan euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko dirulaguntzak. Diruz laguntzen direnak:

- Ekintza solteak: itzulpenak, euskara eskolak, Euskara Batzordeak... (enpresak euskara planik ez badu)
- Diagnostikoa eta Euskara Plana egitea + ekintza solteak (enpresak euskara planik ez badu)
- Urteko kudeaketa plana: enpresaren Euskara Planari lotutako jarduerak.
- Proiektu estrategikoa garatzeagatik laguntza (enpresak euskara plana eduki behar du).

<https://www.euskadi.eus/zer-da-lanhitz/web01-a2lanhit/eu/>



Ekintzaileek eta
enpresek euskara
txertatzeko
LAGUNTZAK

EUSKARA IKASTEKO

Lezoko Udala:

- Udalak % 100 ordainduko du matrikula.

Pasaiako Udala:

Langabetuei, DBE kobratzaileei, merkatariari, Pasaiako enpresetako langileei, ikasleei eta 0-12 urte bitarteko gurasoei % 100 ordainduko die Udalak.

- Gainerako herritarrei % 75.

Errenteriako Udala:

- Langabetuei, Gizarte Larrialdiko laguntza jasotzen dutenei eta gutxiengo soldata jasotzen ez dutenei % 100 ordainduko die Udalak.
- Gainerako herritarrei % 80.

Oiartzungo Udala:

- B2ra arte Udalak % 100 ordainduko du.
- C1 eta C2 mailetarako Udalak % 50 ordainduko du (bestelako baldintzarik betetzen dutenei % 70).

HABE:

- Gaitasun maila bat gaindituz gero, bestelako dirulaguntzekin bateragarri den dirulaguntza jasotzeko aukera. Guztira % 100era iritsi arte (B2ra arte).

ITZULPEN ZERBITZUAK



OARSOARRAK ITZULPEN ZERBITZUA:

- Euskarazko testuen zuzenketa.
- Erdarazko testuen itzulpena, hainbat neurritako paperezko hondo diseinatueta maketaturik.
- Saltokietan eta ostalaritza establezimenduetan jartzen diren kartelak ("Merkealdia", "Zabalik- itxita" edo "Oraintxe nator / vuelvo enseguida") Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuaren bitartez eskura daitezke.

Zerbitzu hau baliatzeko baldintza hauek bete behar dira:

- Partikularra ez izatea.
- Erakunde ofizialen mendeko entitatea ez izatea.
- Idazkiak edo testuak zabalpen publikoa izatea.
- 3 folio baino gehiago ez izatea (katalogoak salbu).
- Jatetxeei karta eta menua itzultzen dizkiegu euskarara -aurreneko aldian-, txukun editatuta.

ERRENTERIAKO UDALA: testuen zuzenketa eta itzulpena doan. [Info](#) +

PASAIKO UDALA: testuen zuzenketa eta itzulpena doan. [Info](#) +

ITZULTZAILE NEURONALA:

- **ITZULI**, Eusko Jaurlaritza: testu motzak online itzultzeko. [Info](#) +
- **ELIA**, **Elhuyar**: testu motzak online itzultzeko aukera, erregistratuz gero dokumentu osoak itzultzeko aukera. [Info](#) +
- **TREBE**: Dokumentuak itzultzeko, audioak transkribatzeko eta dokumentuak audio bihurtzeko aukera (ordainpekoa). [Info](#) +